# Xedapen Orokorrak

**ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA**
**INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA**

**6236**

307/2010 DEKRETUA, azaroaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Bigarren Plan Orokorraren (2005-2016 aldia) berrikusketa onartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Egitamu Nagusia araupetzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legean ezarrita dago aipatutako Planari aplikatzekoa zaion araubide juridikoa. Hain zuzen 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.8 artikuluaren bigarren eta hirugarren idatz-zatietan aipatzen da plan hori.

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Egitamu Nagusia araupetzen duen Legearen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio bai Errepideen Plan Orokorra, bai sei urtean behin egin beharreko berrikusketak bai ohiz kanpoko aldaketak onartzeko ardura. Horrela, bada, abenduaren 19ko 283/1989 Dekretuaren bidez, Errepideen Plan Orokorra onartu zen 1987-1998 aldirako; abenduaren 30eko 355/1992 Dekretuaren bidez, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorraren berrikusketa onartu zen eta, geroago, ekainaren 8ko 250/1999 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Bigarren Plan Orokorra onartu zen 1999-2010 aldirako.

Ekainaren 8ko 250/1999 Dekretuko 2. artikuluan xedatu da Errepideen Plan Orokorrak 12 urte iraungo duela, 1999tik 2010era, hain zuzen. Dena den, luzatu ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Egitamu Nagusia araupetzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legean xedatutakoaren arabera sei urtean behin egin behar den berrikusketaren bidez.

Epe hori igarota, beraz, Errepideen Bigarren Plan Orokorra onartzeari ekin behar zaio.

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Egitamu Nagusia araupetzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 12.1 artikulua betetze aldera, Garraio eta Herri Lan Sailak Planaren Aurrerapena idatzi zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorraren Batzordearekin elkarlanean. Batzor-

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**
**DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA**

**6236**

DECRETO 307/2010, de 23 de noviembre, por el que se aprueba la revisión del Segundo Plan General de Carreteras del País Vasco para el periodo 2005-2016.

La Ley 2/1989, de 30 de mayo, reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco, establece el régimen jurídico aplicable al citado Plan, al que aluden los párrafos segundo y tercero del artículo 7.a.8 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos.

El artículo 3 de la Ley reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco establece que corresponde al Gobierno Vasco tanto la aprobación del Plan General de Carreteras como de las revisiones sexenales y las modificaciones extraordinarias. Así, el Decreto 283/1989, de 19 de diciembre, aprobó el Plan General de Carreteras para el periodo 1987-1998, el Decreto 355/1992, de 30 de diciembre, aprobó la revisión del Plan General de Carreteras del País Vasco, y posteriormente el Decreto 250/1999, de 8 de junio, aprobó el Segundo Plan General de Carreteras del País Vasco, correspondiente al periodo 1999-2010.

Dicho Decreto 250/1999, de 8 de junio, dispone en su artículo 2 que el Plan General de Carreteras tendrá una duración de 12 años, de 1999 a 2010, prorrogable mediante la revisión sexenal que establece el artículo 8.1 de la Ley 2/1989 reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco.

Transcurrido dicho periodo corresponde, por tanto, aprobar la Revisión del Segundo Plan General de Carreteras.

Así, y en cumplimiento del artículo 12.1 de la Ley 2/1989, de 30 de mayo, reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco, el Departamento de Transportes y Obras Públicas redactó, en colaboración con la Comisión del Plan General de Carreteras del País Vasco, el texto del Avance del Plan, el cual,

deak 2007ko maiatzaren 31n eman zuen aldez aurreko txostena, eta, ondoren, jendaurreko entzunaldiko izapidea, administrazio interesdunei entzuteko izapidea eta ingurumenaren arloko izapidea bete ziren, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan xedatutakoaren bat etorriz.

Prozesu horretan zehar egindako aldaketak dokumentuari atxiki eta gero, batzordeak dokumentuaren aldeko txostena eman zuen 2009ko apirilaren 6an, eta, horiek horrela, plana behin-behinekoz onartu zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak dokumentuaren aldeko txostena eman zuen 2009ko abenduaren 16an.

Uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan xedatutakoa betetze aldera, Ingurumeneko sailburuordeak ingurumenaren eraginaren gaineko behin betiko txostena (IDIA) eman du 2010eko irailaren 24an. Halaber, Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzak Planean ingurumenari lotutako alderdiak sartzeari buruzko motibazioaren gainean dagokion adierazpena idatzi du 2010eko irailaren 30ean. Adierazpen hori, hain zuzen, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar da.

Horiek guztiak horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorraren Berrikusketa onartu behar da.

Horrenbestez, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko azaroaren 23an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

***1. artikulua.***– Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Plan Orokorraren berrikusketa onartu da; Dekretu honen eranskin gisa ageri da.

***2. artikulua.***– Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Plan Orokorraren berrikuspenak 12 urte iraungo du, 2005etik 2016ra, hain zuzen.

***3. artikulua.***– Helburuei eta programei buruzko atalak lotesleak dira Lurralde Historikoetako foru-organoentzat, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Egitamu Nagusia araupetzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legean xedatutakoarekin bat.

***4. artikulua.***– Jarduera-programen derrigorrezko edukia behar bezala betetzen dela bermatze aldera, premiazkotzat jotzen da Planaren Berrikusketan jasotako jardueren eraginpean dauden ondasun eta eskubideak okupatzea, dagokion desjabetze-prozedura aplikatzearen ondorioetarako.

previo informe de la comisión de 31 de mayo de 2007, fue sometido a trámite de información pública y audiencia a las administraciones interesadas, así como el trámite ambiental en virtud de lo dispuesto en el Decreto 183/2003, de 22 de julio.

Incorporadas al documento de Avance las modificaciones resultantes del proceso, la Comisión del Plan informa favorablemente, con fecha 6 de abril de 2009, el documento del Plan para aprobación provisional.

El documento ha sido informado favorablemente por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco el 16 de diciembre de 2009.

En cumplimiento de lo dispuesto en el Decreto 183/2003, de 22 de julio, la Viceconsejería de medio Ambiente ha emitido informe definitivo de impacto ambiental (IDIA) con fecha 24 de septiembre de 2010, y la Dirección de Infraestructuras del Transporte ha redactado la correspondiente declaración sobre la motivación de integración en el Plan de los aspecto medioambientales con fecha 30 de septiembre de 2010, declaración que debe ser publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

Corresponde, en consecuencia, aprobar la Revisión del Segundo Plan General de Carreteras del País Vasco.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, y de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 23 de noviembre de 2010,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Se aprueba la revisión del Segundo Plan General de Carreteras del País Vasco, que se acompaña, referenciado, como anexo al presente Decreto.

***Artículo 2.***– Esta Revisión del Segundo Plan General de Carreteras del País Vasco tendrá una duración de doce años, de 2005 a 2016.

***Artículo 3.***– Son vinculantes para los Órganos Forales de los Territorios Históricos los capítulos de Objetivos y de Programas, en los términos dispuestos en la Ley 2/1989, de 30 de mayo, reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco.

***Artículo 4.***– A fin de garantizar el efectivo cumplimiento del contenido obligatorio de los programas de actuaciones, se declara urgente la ocupación de los bienes y derechos afectados por las actuaciones comprendidas en la Revisión del Plan, a los efectos de la aplicación del procedimiento expropiatorio correspondiente.

***5. artikulua.***– Maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 8.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, ohiko aldaketatzat hartuko dira arau teknikoei eta programatutako jarduerak lehenesteari eragiten dietenak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

***Lehenengoa.***– Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Egitamu Nagusia araupetzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 9. artikuluan xedatutakoarekin bat, Garraio eta Herri Laneko sailburuaren 2007ko uztailaren 12ko aginduaren bidez onartu zen araua -zoruak neurtzeko araua, hain zuzen- sartuko da Errepideen Plan Orokorra (1987-1998) onartzeko abenduaren 19ko 283/1989 Dekretuaren III. kapituluan ezarritako arau teknikoetan.

***Bigarrena.***– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak emandako agindu bidez argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Ingurumen Eraginari buruzko Behin Betiko Txostena, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan xedatutakoarekin bat.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Bigarren Plan Orokorra 1999-2010 aldirako onartzeko ekainaren 8ko 250/1999 Dekretua eta maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak, Dekretu honi aurka egiten dieten alderdiei dagokienez.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu eta egun horretan bertan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko azaroaren 23an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

***Artículo 5.***– A los efectos de lo dispuesto por el artículo 8.3 de la Ley 2/1989, de 30 de mayo, se consideran modificaciones ordinarias las que afectan a las normas técnicas y a la priorización de las actuaciones programadas.

DISPOSICIONES ADICIONALES

***Primera.***– De conformidad con lo establecido en el artículo 9 de la Ley 2/1989, de 30 de mayo, reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco, se incorpora a las Normas Técnicas establecidas en el Capítulo III del Decreto 283/1989, de 19 de diciembre, por el que se aprobó el Plan General de Carreteras para el periodo 1987-1998, la Norma para el dimensionamiento de firmes aprobada por Orden de 12 de julio de 2007, de la Consejera de Transportes y Obras Públicas.

***Segunda.***– Mediante Orden del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes se procederá a ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del Informe Definitivo de Impacto Ambiental en cumplimiento de lo dispuesto en el Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogados el Decreto 250/1999, de 8 de junio, de aprobación del Segundo Plan General de Carreteras del País Vasco, correspondiente al periodo 1999-2010, así como las demás disposiciones de igual o inferior rango en lo que se opongan al presente Decreto.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su aprobación por el Consejo de Gobierno.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de noviembre de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

AZAROAREN 23KO 307/2010
DEKRETUAREN ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERREPIDEEN
BIGARREN PLAN OROKORRAREN BERRIKUSKETA

(Erantsitako dokumentua Interneteko honako helbide honetan dago: http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-430/eu/contenidos/informacion/plancarreteras/eu_plc/eu_plc.html)

ANEXO AL DECRETO 307/2010,
DE 23 DE NOVIEMBRE

REVISIÓN DEL SEGUNDO PLAN GENERAL
DE CARRETERAS DEL PAÍS VASCO

(El documento anexo figura en la dirección de Internet: http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-430/eu/contenidos/informacion/plancarreteras/es_plc/es_plc.html)